

5.- Sariak.

"XV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" eskuratzen duenari 6.000 euro garbi emango zaizkio.

"Kazetari Berria saria" eskuratzen duenari 2.400 euro garbi emango zaizkio.

Gainera, Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren kaxa oroigarria eta agiri-diploma jasoko dituzte saridunek.

Sariak zatietan dira, baina, hori bai, taldean edo elkarlanean egindako lanei ere eman dakieke saria.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du Epaimahaia.

6.- Epaimahaia.

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

* **Mahaiburua:** Andoaingo Udaleko Alkatea edo honek bere ordezkio gisa izendatutako udalkidea.

* **Mahaikideak:** Allande Boutin jauna, Laura Mintegi andrea, Koldo Ordozgoiti jauna, Mikel Irizar jauna eta Jose Ignacio Basterretxea jauna.

* **Idazkaria:** Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria, Julen Aranguren, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

7.- Sariei buruzko Azken Erabakia.


2003ko udan emango da aditzera sariei buruz epaimahaia hartutako *Azken Erabakia*, apelaezina izango dena.

8.- Baldintzak onartzea.

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.

Rikardo Arregi

Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942 - Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak **"Politika Estrukturak europear alkartasunean"** (1965); **"Politikaren atarian"** (1969); **"Herriaren lekuko"** (1972)...



XV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria



ANDOAINGO UDALA

Euskararen Normalkuntzarako Lansaila



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Saila

2002/03

Kontuan hartuta euskararen normalkuntzak ezinbestez behar dituela euskaraz egindako kazetaritza eta, oro har, komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa, Andoaingo Udalak
XV. Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

1.- Sariaren xedea.

Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da *Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren* helburua. Horrela, bada, ondoren zehazten den urtebeteko epearen barruan egin izan diren kazetaritza-lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, epaimahaiak eredugarrien iritzitako lanak sarituz.

2.- Sari-atalak.

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

- * **XV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria.**
- * **Kazetari Berria saria.**

Aipaturiko bi sari horiez gain egoki edo beharrezko iritziz gero *Aipamen Berezia* egiteko aukera eskura du epaimahaiak.

Halaber, euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen *Ohorezko Aipamena* egiteko aukera ere aitortzen zaio epaimahaiari.

3.- Sari-atalen ezaugarriak.

1.- "XV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" izeneko atala.

2002ko maiatzaren 16tik 2003ko maiatzaren 16ra bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala

XIV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria

nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritza-lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera.

Edozein mota edo jenerotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako jenero-mugarik gabe erabakiko du saria.

Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat, kazetari talde bat... horietarik edozer eta/edo edozein saritu ahal izango du epaimahaiak.

2.- "Kazetari Berria saria" izeneko atala.

Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da hau, eta, ondorioz, hogeitabost urtez azpikoek, hau da, 2003ko maiatzaren 16an, artean, hogeitabost urte edo gutxiago izango dituztenek partehar dezakete atal honetan.

Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, hala nola hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke 25 urtez azpikoek *Kazetari Berria saria* jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

Edozein mota edo jenerotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Horrela, bada, 2002ko maiatzaren 16tik 2003ko maiatzaren 16ra bitartean prentsa idatzian edo irrati eta telebistetan plazaratutako artikulua, erreportaje, informazio-programa, magazin eta abarren artean kalitatea eta egokitasuna kontuan hartuz epaimahaiaren iritzian bikainena denari emango zaio saria.

4.- Lanak aurkeztea.

1.- "XV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" izeneko atalean autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, beti ere 2003ko maiatzaren 26a baino lehen hurrengo puntuan adierazten den helbidera lanaren sei kopia bidaliz. Gainera, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko da, eta, irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokion enpresak luzatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke aipatutako argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordeza aurkezten duenaren beraren zinpeko aitortpena igortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz.

Aditzera ematen da, nolanahi ere, saria eskuratzeko ez dela ezinbestekoa izango inork aldezturik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien irizten duen moduan egingo ditu sari hori erabakitzeko egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak. Hala eta guztiz ere, lanak eta/edo proposamenak aurkez ditzaten dei egiten zaie autore, komunikabide eta sariaren helburuekin zerikustekorik dutenei.

2.- "Kazetari Berria saria" izeneko atalean saria eskuratzeko nahitanahiezkua da lanak aurkeztea. Izan ere, atal honetako saria aurkeztutakoan artean erabakiko baitu epaimahaiak. Kasu honetan ere autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, 2003ko maiatzaren 26a baino lehen gero aipatzen den helbidera lanaren sei kopia bidaliz.

3.- Hona sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbidea:

Andoaingo Udaletxea
XV. Rikardo Arregi saria
Goikoplaza, z/g
20140 ANDOAIN